## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA

*Ikuskizun kiroleko Gipuzkoako taldeen jarduerarako diru laguntzak emateko oinarri orokorrak eta espezifikoak eta 2011ko deialdia.*

Diputatuen Kontseiluak 2011ko uztailaren 26an egindako batzarraldian, besteak beste, ondoko erabakia hartu du:

Gipuzkoako Foru Aldundiak kirol izaerako hainbat adierazpide bultzatzen du horiek duten berezko gizarte eta kultura balioarengatik. Gainera, ikusi da zein egoki diren lurralde historikoaren irudia sustatzeko, kirol esparruak eragiten duen publizitate oihartzuna dela bide. Halaber, herritarrei berdina egiteko gogoa eragiten die, batez ere herritar gazteenei; hartara, kirol jarduera sustatzeko lanabes eraginkorra da. Testuinguru horretan, ikuskizunezko kirola delakoak, komunikabideek eskaintzen dioten arretarengatik, eragin erabakigarria du aipatu diren alderdietan eta horregatik Gipuzkoako Foru Aldundiak lagundu egiten die ikuskizun kiroleko Gipuzkoako taldeei horretara bideratutako diru laguntza lerroaren bitartez.

Laguntza hauetarako, ikuskizun kirol gisa hartzen dira kirol federazioek edota liga profesionalek edo maila bereko erakundeek antolatzen dituztenean txapelketak edo kirol jarduerak eta indarrean dagoen araudiak kategoria profesional izendatu dituenean. Txapelketa horien beste elementu komuna da horietan parte hartzeko aurrekontu garrantzitsua behar dela.

Edonola ere, kirolak dituen gizarte, kultura eta heziketako balio horiek aipatu diru laguntzak Europar Batasuneko Funtzionamendu Ituneko 107. artikuluan xedatzen diren «estatuko laguntzak» kontzeptutik urruntzen dituzte, enpresen arteko lehiakortasunean eraginik ez izateaz gain, erakunde onuradunen bidez interes orokorra bilatzea dutelako xede.

Hain zuzen, erabaki honen bidez diru laguntza horiek ematea arautzeko oinarri orokorrak eta berariazkoak onartzen dira, baita diru laguntza horien 2011-2012 denboraldiko deialdia ere.

Horrenbestez, Diputatuen Kontseiluak, Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuaren proposamenez, eztabaidatu ondoren,

ERABAKI DU

*Lehenengo:* Onartzea ikuskizun kiroleko Gipuzkoako taldeen jarduerarako diru laguntzak ematea arautzeko oinarri orokorrak, erabaki honen bukaeran biltzen direnak, baita diru laguntza horien berariazko oinarriak ere, eranskinean jaso direnak.

*Bigarren:* Onartzea aipatutako diru laguntzen 2011-2012 denboraldiko deialdia.

1. Finantziazioa.

1.1. Diru laguntza hauetarako bi milioi bederatziehun eta hamaika mila hirurehun eta hogei (2.911.320,00) euroko gastua baimentzen da 5.0210.100.481.00.44 2012 kontu sailaren kargura.

## DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE CULTURA, JUVENTUD Y DEPORTE

*Bases reguladores generales y específicas de otorgamiento de subvenciones destinadas a la actividad de los equipos guipuzcoanos considerados de deporte espectáculo y convocatoria 2011*

El Consejo de Diputados, en sesión celebrada el 26 de julio de 2011, ha adoptado entre otros el siguiente acuerdo:

La Diputación Foral de Gipuzkoa, considerando el intrínseco valor socio-cultural del deporte, promueve diversas manifestaciones de carácter deportivo que, además, constituyen un medio idóneo para promocionar la imagen del territorio histórico a través de la difusión mediática en los ámbitos relacionados con el deporte. Esas manifestaciones producen, además, un efecto de «emulación» en la ciudadanía, sobre todo entre los y las más jóvenes, que las convierte en un eficaz instrumento de promoción de la práctica deportiva. En este contexto, el llamado deporte espectáculo, por el seguimiento que desde los medios de comunicación recibe, tiene una incidencia trascendental en los aspectos que se han mencionado y por eso mismo la Diputación Foral de Gipuzkoa ayuda a los equipos guipuzcoanos considerados de deporte espectáculo mediante la correspondiente línea de subvenciones.

A efectos de estas ayudas, se considera deporte espectáculo aquél cuyas competiciones o actividades deportivas oficiales son organizadas por federaciones deportivas y/o ligas profesionales o entidades asimiladas y han sido calificadas por la normativa vigente como categorías profesionales. Estas competiciones tienen también en común el importante montante presupuestario que se requiere para participar en las mismas.

En todo caso, el valor socio-cultural y educativo del deporte aleja las citadas subvenciones del concepto de «ayudas de Estado» del artículo 107 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea; porque, lejos de tener incidencia en la competencia empresarial, están destinadas, a través de las entidades beneficiarias de las mismas, al cumplimiento del interés general.

Por tanto, mediante el presente acuerdo se aprueban las bases generales y específicas que regulan la concesión de dichas subvenciones, así como la convocatoria de la temporada 2011-2012 de las mismas.

En su virtud, el Consejo de Diputados, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Cultura, Juventud y Deporte, y previa deliberación,

ACUERDA

*Primero:* Aprobar las bases generales reguladoras del otorgamiento de subvenciones destinadas a la actividad de los equipos guipuzcoanos considerados de deporte espectáculo, que se insertan al final del presente acuerdo, así como las bases específicas que se acompañan como anexo.

*Segundo:* Aprobar la convocatoria de la temporada 2011-2012 de las citadas subvenciones.

1. Financiación.

1.1. Para las subvenciones objeto del presente acuerdo se autoriza un gasto por importe de dos millones novecientos once mil trescientos veinte (2.911.320,00) euros, con cargo a la partida 5.0210.100.481.00.44 2012.

1.2. Aurreko paragrafoan baimendutako gastuaren kopurua handitu edo txikitu egin dezake aldaketaren zenbatekoaren arabera horretarako eskumena emana duen organoak, diru laguntzak emateko ebazpena onartu aurretik eta deialdi berririk egin behar izan gabe. Kopuru gehigarri hori eraginkorra izateko baldintza da diru laguntza ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri dagoela adieraztea.

2. Eskaerak aurkezteko epea.

Diru laguntza eskaerak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izango da, deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

3. Diru laguntza hauek arautzeko 5.1 berariazko oinarrian ezarritakoari jarraikiz, txapelketa kategoriaren eta kirol modalitateen araberako gehieneko diru laguntzak, deialdi honetan, honako hauek izango dira:

| | *Euro* |
|---|---|
| Gizonezko Saskibaloi ACB liga | 1.300.000 |
| UCI Pro Tour (txirrindularitza) | 900.000 |
| Emakumezkoen Saskibaloi Liga | 500.000 |
| Gizonezkoen Ohorezko «A» Maila (ASOBAL liga) | 500.000 |
| Emakumezkoen eskubaloiko Ohorezko Maila | 500.000 |
| Emakumezkoen futboleko Ohorezko Maila Superliga | 300.000 |

*Hirugarren:* Erabaki honen bidez onartutako oinarri arautzaileek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egunetik aurrera izango dute eragina.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Guztien jakinerako argitaratzen da hori.

Donostia, 2011ko uztailaren 26a.—Ramón Martiarena Bergaretxe, Departamentuko idazkari teknikoa.

(575) (8564)

OINARRI ARAUTZAILE OROKORRAK

*1. Xedea.*

Oinarri hauen helburua da ikuskizun kiroleko Gipuzkoako taldeen jarduera laguntzeko diru laguntzak ematea arautzea.

*2. Diru laguntzen entitate onuradunak.*

1. Oinarri hauetan araututako diru laguntzak eskatzeko aukera izango dute berariazko oinarrietako 2.ean definitutakoaren arabera ikuskizun kiroleko txapelketetan parte hartzen duten taldeak dituzten klubek eta bestelako entitateek, betiere, oinarri orokor hauetan eta berarizkoetan ezarritako gainerako

1.2. El importe del gasto autorizado en el apartado anterior podrá ser incrementado o disminuido por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación en cualquier momento anterior a la resolución de concesión y sin necesidad de una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito antes de la resolución de concesión de la subvención.

2. Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes de subvención será de veinte (20) días naturales, contados desde el día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

3. De conformidad con lo establecido en la base específica 5.1 de estas subvenciones, las ayudas máximas por categorías de competición y modalidades deportivas en la presente convocatoria son las siguientes:

| | *Euros* |
|---|---|
| Liga ACB de Baloncesto Masculino | 1.300.000 |
| UCI Pro Tour (ciclismo) | 900.000 |
| Liga Femenina de Baloncesto | 500.000 |
| División de Honor «A» Masculina de Balonmano (Liga ASOBAL) | 500.000 |
| División de Honor Femenina de Balonmano | 500.000 |
| Primera División Femenina Superliga de Fútbol | 300.000 |

*Tercero:* Las bases reguladoras aprobadas por el presente acuerdo producirán efectos desde el día de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra el recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Diputados, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para conocimiento general.

Donostia-San Sebastián, a 26 de julio de 2011.—El secretario técnico del Departamento, Ramón Martiarena Bergaretxe.

(575) (8564)

BASES REGULADORAS GENERALES

*1.ª Objeto.*

Es objeto de las presentes bases la regulación del otorgamiento de subvenciones destinadas a la actividad de los equipos guipuzcoanos considerados de deporte espectáculo.

*2.ª Entidades beneficiarias de estas subvenciones.*

1. Podrán acogerse a las subvenciones reguladas en estas bases los clubes y otras entidades deportivas cuyos equipos participen en categorías de competición consideradas de deporte espectáculo, según se define éste en la base específica 2.ª, y cumplan los demás requisitos que se indican en las presentes

baldintzak betetzen badituzte eta ez badie 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 12. artikuluaren 2, 3 eta 4. ataletan ezarritako debekuren batek eragiten.

2. Diru laguntzen onuradun izateko 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauaren 12. artikuluaren 2, 3 eta 4. ataletan ezarritako debekuek eragiten ez dietela egiaztatzeko diru laguntzaren eskaerarekin batera deklarazio arduratsua aurkeztu ahal izango da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuaren ereduaren arabera.

Edonola ere, zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatze aldera, entitate interesdunak dagokien organoek egindako ziurtagiriak aurkeztu behar ditu; edo horren ordez, baimena eman ahal izango du espresuki informazio hori aipatu organoek zuzenean Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuari laga diezaioten.

*3. Diru laguntzetarako eskaerak aurkezteko modua eta epea.*

1. Eskaerak, Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuak emandako ereduaren arabera, aurreko oinarrian eta oinarri hauen eranskin gisa doazen berariazko oinarrietan ezarritako dokumentazioarekin batera, Internet bidez aurkeztuko dira, ahal dela eta dituzten ezaugarriek bide hori ixten ez badie, Gipuzkoako Foru Aldundiaren www.gfaegoitza.net egoitza elektronikoan, diru laguntzen atarian, dauden euskarazko ala gaztelerazko sarrera helbideak erabiliz. Eskaerak eta dokumentazio osagarria aurkezterakoan foru dekretu hauek bete behar dira: Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzeko 2010eko irailaren 28ko 23/10 Foru Dekretua, eta foru administrazioaren aurrean egin beharreko jarduketetan nortasuna eta ordezkaritza egiaztatzea arautzen duen 2006ko irailaren 12ko 40/06 Foru Dekretua.

Halaber, badago aukera eskaerak eta dokumentazioa Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuaren Erregistroan (Gipuzkoa plaza z/g, 2. solairua, Donostia) edota Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erregistro Zentralean (aurreko helbidearen beheko solairuan) aurkezteko; era berean, 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legearen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenaren, 38.4 artikuluan aurreikusitako bitartekoen bidez aurkeztu ahal dira.

2. Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskaera orri normalizatuak www.gipuzkoa.net/kirolak web orrian eskuragarri egongo dira eta Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuaren bulegoetan ere jaso ahal izango dira.

3. Eskaerak aurkezteko epea deialdian ezarriko da.

4. Erakunde eskatzaileek ez dituzte jada Gipuzkoako Foru Aldundiak badituen dokumentuak aurkeztu beharko, 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legearen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenaren, 35.f) artikuluan aurreikusitakoari jarraiki eta eskaera orrian zein organoren aurrean edo bulegotan eta noiz aurkeztu ziren edo, hala badagokio, jaulki ziren, adierazi beharko da, betiere dagokion prozedura amaitu ondoren ez badira bost urte iragan.

bases generales y en las específicas; siempre que, además, no se vean afectados por ninguna de las prohibiciones de los apartados 2, 3 y 4 del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. La acreditación de no incurrir en las prohibiciones para obtener la condición de entidad beneficiaria de las subvenciones que se establecen en el artículo 12, apartados 2, 3 y 4, de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, podrá realizarse mediante la presentación de una declaración responsable que se acompañe a la solicitud de subvención, según modelo que facilite el Departamento de Cultura, Juventud y Deporte de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En todo caso, para acreditar el cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, la entidad interesada deberá aportar los correspondientes certificados emitidos por los órganos competentes; o en su lugar, podrá autorizar expresamente la cesión de dicha información por parte de los citados órganos directamente al Departamento de Cultura, Juventud y Deporte.

*3.ª Forma y plazo de presentación de las solicitudes de subvención.*

1. Las solicitudes, según modelo que facilite el Departamento de Cultura, Juventud y Deporte, junto con el resto de documentación que deba acompañarlas según la base anterior y lo señalado en las bases específicas que, como anexo, acompañan a estas bases, se presentarán, preferentemente y siempre que su naturaleza lo permita, vía internet, a través de las direcciones de acceso existentes, en euskera y castellano, en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, www.gfaegoitza.net, portal de subvenciones. Esta presentación de las solicitudes y de la documentación complementaria se realizará en los términos previstos en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de setiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral, y en el Decreto Foral 40/2006, de 12 de setiembre, por el que se regula la acreditación de la identidad y la representación en las actuaciones ante la Administración Foral.

También podrán presentarse en el Registro del Departamento de Cultura, Juventud y Deporte (Plaza Gipuzkoa s/n, 2.ª planta, San Sebastián), en el Registro Central de la Diputación Foral de Gipuzkoa (en planta baja de la dirección anterior), o por cualquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2. La información de cada convocatoria y los impresos normalizados de solicitud estarán disponibles en la página web www.gipuzkoa.net/kirolak y se podrán recoger también en las dependencias del Departamento de Cultura, Juventud y Deporte.

3. El plazo de presentación de las solicitudes se fijará en la convocatoria.

4. Las entidades solicitantes no estarán obligadas a presentar los documentos que ya obren en poder de la Diputación Foral de Gipuzkoa, de conformidad con lo previsto en el artículo 35.f) de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, debiendo indicar en el impreso de solicitud la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos, siempre que no hayan transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento al que correspondan.

*4. Dokumentazio osagarria.*

1. Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez baditu identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badu edo zerbait falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio, 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legearen 71.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki, hamar eguneko epean akats horiek zuzentzeko eta adieraziko zaio, hori egingo ez balu, eskaera bertan behera uzten duela ulertuko dela, aipatu legearen 42.1 artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuak eskaera ebaluatu eta erabakia hartzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarri oro eskatu ahal izango dio eskatzaileari.

*5. Emateko prozedura.*

1. Diru laguntzak emateko prozedura deialdi eta hautaketa prozesu bakarreko lehia izango da.

2. Laguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da, deialdi publiko bidez. Deialdia organo eskumendunak onartuko du eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

*6. Balorazio irizpideak.*

Diru laguntzen eskaerak baloratzeko irizpideak berariazko oinarrietako 4.ean ezarritakoak izango dira.

*7. Finantziazioa.*

1. Hala badagokio, eman daitezkeen diru laguntzak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatuko dira. Deialdiak ezarriko du diru laguntzak aurrekontuko zein kredituren kargurakoak izango diren.

2. oinarri hauen xede diren diru laguntzak xede bereko beste diru laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin bateragarriak izango dira, edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandakoekin, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeenak izanda ere, horren inguruan beste diru laguntzak arautzen dituzten araudiek ezar dezaketenaren kalterik gabe.

3. oinarri hauetan erregulatutako diru laguntzen zenbatekoak, bakarka edota bestelako administrazio publikoen edo erakunde publiko nahiz pribatuen diru laguntza edota bestelako laguntzekin batera, ez du inola ere onuradunak aurrera eraman beharreko jardueraren kostua gaindituko.

4. Diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, eta nolanahi ere, oinarri hauetan baimendutako kasuez kanpo diru laguntza hauekin batera laguntzak jasoz gero, diru laguntza emateari buruzko ebazpena aldatua izan daiteke.

*8. Diru laguntzen zenbatekoa.*

1. Diru laguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera finkatuko da, aurrekontuan erabilgarri dagoena eta berariazko oinarrietako 4.ean definitutako diru laguntzen balorazio eta kuantifikazio irizpideak kontuan izanda.

2. Diruz lagun daitezkeen gastuei dagokienez, berariazko oinarrietan adierazitakoaz gain, 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 30. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da, baina egindako gastutzat hartuko da zehaztutako justifikazio aldia amaitu aurretik benetan ordainduta dagoenaz gain, baita diru laguntza jaso duen entitate onuradunak oraindik ordaindu gabe duena ere, baina justifikatuta dagoena dagozkion fakturen edo balio bereko frogagirien bidez.

*4.ª Documentación complementaria.*

1. Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la entidad solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, para que, en el plazo de diez días, subsane los defectos detectados, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, en los términos previstos en el artículo 42.1 de ese mismo texto legal.

2. El Departamento de Cultura, Juventud y Deporte de la Diputación Foral de Gipuzkoa podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta documentación e información complementaria considere necesarias para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.

*5.ª Procedimiento de concesión.*

1. El procedimiento de concesión de las subvenciones será el de concurrencia competitiva mediante convocatoria y procedimiento selectivo único.

2. El procedimiento de concesión de las ayudas se iniciará de oficio, mediante convocatoria pública aprobada por el órgano competente y publicada en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

*6.ª Criterios de valoración.*

Los criterios de valoración de las solicitudes de subvención serán los que se señalan en la base específica 4.ª

*7.ª Financiación.*

1. Las subvenciones que, en su caso, puedan otorgarse se financiarán con cargo a los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa. La convocatoria establecerá los créditos presupuestarios con cargo a los cuales se financiarán las subvenciones.

2. Las subvenciones objeto de las presentes bases serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que al respecto pudiera establecer la normativa reguladora de las otras subvenciones concurrentes.

3. El importe de las subvenciones reguladas en estas bases en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente, o en concurrencia con subvenciones o ayudas de otras administraciones públicas, o de otros entes públicos o privados, supere el coste de la actividad a desarrollar por la entidad beneficiaria.

4. Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en todo caso, la obtención concurrente de otras aportaciones fuera de los casos permitidos en las presentes bases, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión.

*8.ª Cuantía de las subvenciones.*

1. El importe de la subvención se fijará con arreglo a la documentación aportada por la entidad solicitante, teniendo en cuenta las disponibilidades presupuestarias y los criterios de valoración y cuantificación de las subvenciones definidos en la base específica 4.ª

2. En relación a los gastos subvencionables, además de lo indicado en las bases específicas, será de aplicación lo dispuesto en el artículo 30 de la Normal Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, si bien se considerará gasto realizado, no sólo aquél que haya sido efectivamente pagado con anterioridad a la finalización del periodo de justificación determinado, sino también el que, estando pendiente de pago por la entidad beneficiaria de la subvención, se encuentre justificado mediante las correspondientes facturas o documentos de valor probatorio equivalente.

*9. Prozedura antolatu eta bideratzeko eskumena duten organoak.*

1. Diru laguntza hauek emateko prozedura bideratzea Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuko Idazkaritza Teknikoari eta kirol kontuetan eskumena duen Zuzendaritza Nagusiari egokituko zaie.

2. Eskaerak kirol kontuetan eskumena duen Zuzendaritza Nagusiko teknikariek aztertuko dituzte eta, behar izanez gero kanpoko adituen laguntzarekin, balorazio txostena egingo dute. Txosten hori Batzorde Ebaluatzaileari igorriko zaio egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuko duen ebazpen proposamena egin dezan eta, ondoren, eskumena duen organoari aurkeztuko zaio onar dezan.

Batzorde Ebaluatzaileko kide izango dira kirol gaietan eskumena duen zuzendari nagusia (lehendakari izango da); Kiroletako zerbitzu burua; zerbitzu horretako teknikari bat; Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontuhartzailetza eta Auditoretza Zerbitzuko teknikari bat; eta Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuko idazkari teknikoa (batzordeko idazkari gisa).

*10. Diru laguntzak emateko ebazpena.*

1. Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatua izango da oinarri hauetan bildutako diru laguntzak ematea ebazteko eskumena duena.

2. 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 59.6.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdiaren ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik.

3. Behar den ebazpena eman eta argitaratu edo jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da; epe hori dagokion deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik aurrera kontatuko da. Epe hori amaitutakoan ez bada ebazpenik jakinarazi edo ez bada argitaratu, eskatzaileek ezetsitzat joko dute administrazioaren isiltasunagatik.

*11. Erakunde onuradunen betebehar eta konpromisoak.*

Erakunde onuradunek diru laguntzak onartzeak eragiten du, izaera orokorrarekin, 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoan, eta 2008ko apirilaren 29ko 24/08 Foru Dekretuan, foru arau hori garatzeko erregelamendua onartzen duenean, ezarritako betebeharrak betetzea. Horrez gain, honako hauek ere bete beharko dituzte:

— Kiro gaietan eskumena duen Zuzendaritza Nagusiak deitzen dituen bileretan parte hartzea, horretarako ahalik eta parte hartzerik handiena egon dadin beharrezko bide eta bitartekoak ezarriz.

— Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea diruz lagundutako jarduera eta programen inguruko adierazpen guztietan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduera esparruan 2008-2012 aldirako hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duen 2009ko urtarrilaren 27ko 4/09 Foru Dekretuak xedatutakoaren arabera.

*9.ª Órganos competentes para la ordenación e instrucción del procedimiento.*

1. La instrucción del procedimiento de concesión de estas subvenciones corresponderá a la Secretaría Técnica del Departamento de Cultura, Juventud y Deporte y a la Dirección General competente en materia de Deportes.

2. Las solicitudes serán analizadas por los técnicos y técnicas de la Dirección General competente en materia de Deportes, quienes, con la eventual asistencia de personas expertas externas, elaborarán un informe de valoración de las mismas, informe que será sometido a la Comisión Evaluadora que, a su vez, emitirá una propuesta de resolución en la que se concretará el resultado de la evaluación efectuada y que será elevada al órgano competente para su aprobación.

Formarán parte de la Comisión Evaluadora el director o directora general competente en materia de Deportes, que presidirá la misma; el jefe o jefa del Servicio de Deportes; un técnico o una técnica de dicho servicio; un técnico o una técnica del Servicio de Intervención y Auditoría del Departamento de Hacienda y Finanzas; y el secretario o secretaria técnica del Departamento de Cultura, Juventud y Deporte, este/a último/a en calidad de secretario/a de la comisión.

*10.ª Resolución de concesión.*

1. La diputada foral del Departamento de Cultura, Juventud y Deporte será el órgano competente para resolver la concesión de las subvenciones contempladas en estas bases.

2. Al amparo de lo dispuesto en el artículo 59.6.b) de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y el Procedimiento Administrativo Común, la resolución de la convocatoria será objeto de publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a la publicación.

3. El plazo máximo para dictar y publicar o notificar la resolución que corresponda será de seis meses. El plazo se computará desde la publicación de la correspondiente convocatoria en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa. Transcurrido dicho plazo sin haberse notificado o publicado la resolución, las entidades interesadas podrán entender desestimada su solicitud por silencio administrativo.

*11.ª Obligaciones y compromisos de las entidades beneficiarias.*

La aceptación de las subvenciones por parte de las entidades beneficiarias implica la sujeción a las obligaciones establecidas con carácter general en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y en su reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril. Estarán obligadas, además, a lo siguiente:

— Participar en las reuniones que convoque la Dirección General competente en materia de Deportes, para lo que se establecerán los cauces y medios necesarios que faciliten la máxima participación.

— Garantizar el uso de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco en las comunicaciones referidas a las actividades y programas subvencionados, de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto Foral 4/2009, de 27 de enero, que regula el uso de las lenguas oficiales en el ámbito de la Diputación Foral de Gipuzkoa para el período 2008-2012.

— Diruz lagundutako jarduera edo jarduketak duen finantzaketa publikoaren berri ematea. Besteak beste, laguntza eman duen entitatearen irudi instituzionala sar daiteke jokatzeko edo entrenatzeko ekipoetan, edo finantzaketa publikoari buruzko testua jar daiteke karteletan, plaka oroigarrietan, material inprimatuetan, bitarteko elektroniko edo ikusentzunezkoetan, edo diru laguntza hedabideetan aipatu daiteke.

— Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egitea sortzen diren agiri eta euskarrietan.

— Oinarri orokor hauekin batera doazen berariazko oinarrietan adierazten diren gainerako betebeharrak betetzea.

*12. Diru laguntzen ordainketa.*

Diru laguntzak berariazko oinarrietako 5.ean zehazten den moduan ordainduko dira.

*13. Diru laguntzen justifikazioa.*

1. Diru laguntzak berariazko oinarrietako 6.ean adierazi bezala justifikatuko dira.

2. Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuak laguntza emandako jardueren egiaztapen lanak egin ahal izango ditu, erakunde onuradunari aurretik abisatuta, eta erakundeak erraztasunak eman beharko dizkio, behar duen lekuetara joateko eta informazioa eskuratzeko.

Egiaztapen horretatik ondorioztatuko balitz diruz lagun daitekeen gastua emandako diru laguntza baino txikiagoa dela edo diru laguntza zuritzeko ezarritako baldintzak edo laguntzaren xede zena ez dela bete, diru laguntza jaso duen erakundeari jakinaraziko zaio egiaztapenaren emaitzekin batera eta diru laguntza jasotzeko eskubidea galdu dela aitortzeko prozedura hasiko da edo, hala badagokio, diru laguntza osorik edo zati batean itzultzekoa, 15. oinarri orokorrean aurreikusitakoa.

*14. Diru laguntza emateko ebazpenaren aldaketa.*

Erakunde onuradunek diru laguntza ematen duen organoari eskatu ahal izango diote, diruz lagundutako jarduera zuritzeko epea amaitu aurretik, ebazpena alda dezan finkatutako epeak luzatzeko, emandako diru laguntza murrizteko edo jardueran bildutako ekintzak aldatzeko; ezusteko kausen ondorio direnean edo jardueraren helburua lortzeko beharrezkoak direnean baimenduko dira, betiere diru laguntzaren xedea aldatzen ez bada eta hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira.

Organo eskumendunak ebazpena ofizioz aldatu ahal izango du, aurrez erakunde interesatuarekin bilduta eta funtsak aplikatu aurretik, diru laguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzeak helburu zen interes publikoa lortzea eragozten edo zailtzen badu eta onuradunari ez bazaizkio kalte ekonomikoak eragiten.

*15. Diru laguntzen itzulketa.*

1. Erakunde onuradunak ez baditu oinarri hauetan, berariazkoetan eta gainerako araudi aplikagarrietan ezarritako baldintza eta betebehar guztiak betetzen, diru laguntzak jasotzeko eskubidea guztiz edo zati batean galduko du eta diru laguntza osoa edo zati bat eta dagozkion berandutza interesak itzuli beharko ditu, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoaren, 35. artikuluan ezarritakoari eta apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaz onartutako garapen araudiko 63. artikuluari eta ondorengoei jarraikiz, eta hortik ondorioztaturiko erantzu-

— Dar la adecuada publicidad del carácter público de la financiación de las actividades o actuaciones objeto de subvención, mediante la inclusión de la imagen institucional de la entidad concedente en los equipajes de juego y/o entrenamiento, así como leyendas relativas a la financiación pública en carteles, placas conmemorativas, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, o bien en menciones realizadas en medios de comunicación.

— Realizar un uso no sexista de todo tipo de lenguaje e imágenes en los documentos y soportes que se produzcan.

— Cumplir las restantes obligaciones que se señalan en las bases específicas que acompañan a estas bases generales.

*12.ª Pago de las subvenciones.*

El pago de las subvenciones se producirá del modo señalado en la base específica 5.ª

*13.ª Justificación de las subvenciones.*

1. Las subvenciones se justificarán del modo que se señala en la base específica 6.ª

2. El Departamento de Cultura, Juventud y Deporte podrá realizar actuaciones de comprobación o evaluación de las actividades subvencionadas, previo aviso a la entidad beneficiaria, en las que ésta deberá facilitar el acceso a los lugares y la información que se requiera.

Si como resultado de dicha comprobación se dedujera que el gasto subvencionable ha sido inferior a la subvención concedida o que se han incumplido, total o parcialmente, los requisitos establecidos para la justificación de la subvención o los fines para los que fue concedida la misma, se comunicará tal circunstancia a la entidad subvencionada junto con los resultados de la comprobación realizada, y se iniciará el procedimiento para declarar la pérdida del derecho de cobro de la subvención o, en su caso, el procedimiento de reintegro total o parcial de la subvención previsto en la base general 15.ª

*14.ª Modificación de la resolución de concesión.*

Las entidades beneficiarias podrán solicitar del órgano concedente, antes de que concluya el plazo para la justificación de la actividad subvencionada, modificaciones de la resolución de concesión que supongan ampliación de los plazos fijados, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se dañen derechos de terceras personas.

El órgano concedente también podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia de la entidad interesada y antes de la aplicación de los fondos, cuando la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión impida o dificulte la consecución del interés público perseguido y no se irroguen perjuicios económicos a la beneficiaria.

*15.ª Reintegro de las subvenciones.*

1. El incumplimiento por parte de la entidad beneficiaria de cualquiera de los requisitos y obligaciones establecidos en las presentes bases generales, en las específicas y demás normativa aplicable, dará lugar a la declaración de la pérdida total o parcial del derecho a la percepción de la subvención y a la obligación de reintegrar ésta total o parcialmente junto con los intereses de demora correspondientes, conforme a lo dispuesto en el artículo 35 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y artículos 63 y siguientes de su reglamento de desarrollo, aprobado por

kizunei ere aurre egin beharko die, foru arau horren 49. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraikiz.

2. Ez-betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpideak erabiliko dira eta egindako lanen eta proiektu guztiaren eta jasotako zenbatekoaren arteko proportzioaren arabera kalkulatuko dira.

*16. Araudi aplikagarria.*

Oinarri hauen xede diren diru laguntzei, bertan eta berariazko oinarri arautzaileetan (eranskinean jasotzen direnetan) ezarritakoaz gain, 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoa, eta hori garatzeko emandako araudia, 2008ko apirilaren 29ko 24/08 Foru Dekretuaren bidez onartutakoa, aplikatuko zaizkie.

ERANSKINA

## IKUSKIZUN KIROLEKO TALDEEI ZUZENDUTAKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO BERARIAZKO OINARRIAK

*1. Xedea.*

Oinarri hauen xedea da ikuskizun kirolekotzat hartzen diren Gipuzkoako taldeen jarduerarako laguntza ekonomikoak ematea arautzea.

*2. Entitate onuradunak.*

2.1. Laguntza hauek eskuratu ahal izango dituzte kirol txapelketa ofizialetan edo kirol federazioek edota liga profesionalek edo maila bereko erakundeek antolatzen dituzten eta indarrean dagoen araudiak kategoria profesional edo pareko gisa hartu dituen kirol jardueretan parte hartzen duten taldeak dituzten kirol klubek, kirol elkarteek, kirol sozietate anonimoek edo bestelako erakundeek.

Ondorio horietarako, honako hauek izango dira txapelketa kategoriak, kirol modalitateen arabera banatuta:

Saskibaloia:

— ACB liga (Gizonezkoen Saskibaloi Kluben Elkartea).

— Gizonezkoen Saskibaloiko Espainiako Liga 1 (LEB 1 liga).

— Emakumezkoen Saskibaloi Liga.

Eskubaloia:

— Gizonezkoen Ohorezko «A» Maila (ASOBAL liga).

— Emakumezkoen Ohorezko Maila.

Ziklismoa:

— UCI Pro Tour.

Futbola:

— Futbol Profesionaleko Liga Nazionala (Gizonezkoen futboleko 1. eta 2.A mailak).

— Emakumezkoen Futboleko Lehen Maila.

— Gizonezkoen Areto Futboleko Liga Nazionaleko Ohorezko Maila.

Boleibola:

— Gizonezkoen Ohorezko Maila.

— Emakumezkoen Ohorezko Maila.

Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril, y a las responsabilidades que de ello pudieran derivarse, según lo dispuesto en el artículo 49 y siguientes de dicha norma foral.

2. Para graduar los incumplimientos se utilizarán criterios de proporcionalidad, que serán estimados en función de las acciones realizadas respecto a la totalidad de las mismas y a los importes percibidos.

*16.ª Normativa aplicable.*

Las subvenciones objeto de las presentes bases se regirán, además de por lo dispuesto en las mismas y en las bases específicas contenidas en el anexo, por la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y su reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril.

ANEXO

## BASES ESPECÍFICAS DEL OTORGAMIENTO DE SUBVENCIONES DESTINADAS A EQUIPOS DE DEPORTE ESPECTÁCULO

*1. Objeto.*

Es objeto de las presentes bases regular el otorgamiento de ayudas económicas destinadas a la actividad de los equipos guipuzcoanos considerados de deporte espectáculo.

*2. Entidades beneficiarias.*

2.1. Podrán optar a estas ayudas los clubes deportivos, asociaciones deportivas, sociedades anónimas deportivas, o restantes entidades cuyos equipos participen en competiciones deportivas oficiales o actividades deportivas cuya organización corresponda a federaciones deportivas y/o ligas profesionales o entidades asimiladas y hayan sido consideradas por la normativa vigente como categorías profesionales o asimiladas.

A estos efectos, se consideran como tales las siguientes categorías de competición según modalidades deportivas:

Baloncesto:

— Liga ACB (Asociación de Clubes de Baloncesto masculino).

— Liga Española de Baloncesto masculino 1 (Liga LEB 1).

— Liga Femenina de Baloncesto.

Balonmano:

— División de Honor «A» Masculina (Liga ASOBAL).

— División de Honor Femenina.

Ciclismo:

— UCI Pro Tour.

Fútbol:

— Liga Nacional de Fútbol Profesional (1.ª y 2.ª A División de Fútbol masculino).

— Primera División de Fútbol Femenino.

— División de Honor de la Liga Nacional de Fútbol-Sala masculino.

Voleibol:

— División de Honor Masculina.

— División de Honor Femenina.

2.2. Ezingo dituzte laguntza hauek jaso gaur egun Gipuzkoako Foru Aldundiarekin oinarri hauen xede bereko edo antzeko babes kontratu edo hitzarmen bat sinatuta duten erakundeek.

2.3. Ezingo dituzte laguntza hauek jaso Gipuzkoan modalitate bakoitzerako ezarritako kirol politikaren helburuen aurkako jarduerak egiten dituzten erakundeek.

2.4. Taldearen denboraldi bakoitzerako ohiko aurrekontua 600.000 euro baino gehiago izan behar da. Aurkeztutako aurrekontua orraztu egingo da, baldin eta bertan adierazitako gastuak ez badira laguntza jasoko duen taldearenak, ezin badira egin, edo ez badatoz bat taldearen kirol maila, kategoria edo modalitatearekin. Halaber, beste urte batzuen aldean igoera handiak dituzten aurrekontuak berrikusi eta orraztu egingo dira, hala behar izanez gero.

2.5. Gipuzkoako bi taldek txapelketako maila berean parte hartzen badute, 4. oinarrian ezarritako irizpide eta baremoaren arabera puntu gehien lortzen dituena bakarrik lagunduko da diruz.

*3. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

Eskaerarekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

— 1. inprimakia

— Taldearen hurrengo denboraldiko aurrekontua.

— Kirol denboraldia bukatu ondoren kontu zurigarria bidaltzeko konpromisoa.

— Erakunde eskatzaileren batek kirol proiektu estrategikoren bat egiteko asmoa badu, proiektuaren kopia, bertan helburuak, ezaugarriak eta aurreikusitako kostuak adierazita.

*4. Eskaerak baloratzeko irizpideak.*

4.1. Honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

— Kirol maila.

— Komunikabideetako oihartzuna.

— Aurrekontua.

— Ikusleen batez bestekoa.

— Abonatu kopurua.

— Emakumeen parte-hartzea.

4.2. Eskaerak baremo honen arabera kuantifikatuko dira:

| | *Puntuak* |
|---|---|
| — Kirol maila: | |
| Altua | 50 |
| Ertaina-altua | 25 |
| Ertaina-baxua | 10 |
| — Komunikabideetako oihartzuna: | |
| Oihartzun ertaina | 10 |
| Oihartzun ertain-altua | 25 |
| Oihartzun altua | 50 |
| Oihartzun oso altua | 100 |

2.2. No podrán ser beneficiarias de estas ayudas las entidades que tengan actualmente suscrito con la Diputación Foral de Gipuzkoa contrato de patrocinio o convenio con el mismo objeto o similar al de las presentes bases.

2.3. Tampoco podrán ser beneficiarias de estas ayudas las entidades cuya actividad sea contraria a los objetivos de la política deportiva general fijados para cada modalidad en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2.4. El presupuesto ordinario del equipo para cada temporada deberá ser superior a los 600.000 euros. El presupuesto presentado será depurado si los gastos señalados no corresponden al equipo objeto de la ayuda, no son realizables o no se adaptan al nivel deportivo, categoría o modalidad a la que pertenece el equipo. En este sentido, los presupuestos que presenten incrementos extraordinarios en relación a los presupuestos de años anteriores serán revisados y depurados, si así procediera.

2.5. En el caso de que dos equipos guipuzcoanos participen en la misma categoría de competición, sólo será subvencionado el que obtenga más puntos de conformidad con los criterios y baremos de la base 4.ª

*3. Documentación a presentar junto con la instancia de solicitud.*

La instancia de solicitud deberá acompañarse de la siguiente documentación:

— Formulario 1

— Presupuesto del equipo correspondiente a la temporada siguiente.

— Compromiso de envío de la cuenta justificativa tras finalizar la temporada deportiva.

— En el caso de que alguna de las entidades solicitantes tuviera previsto ejecutar un proyecto deportivo de carácter estratégico, copia del proyecto en el que se recogerán los objetivos, características y costes previstos.

*4. Criterios de evaluación de las solicitudes.*

4.1. Se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

— Nivel deportivo.

— Nivel mediático.

— Nivel presupuestario.

— Nivel medio de espectadores/as.

— Número de abonados/as.

— Participación femenina.

4.2. Las solicitudes serán cuantificadas conforme al siguiente baremo:

| | *Puntos* |
|---|---|
| — Nivel deportivo | |
| Alto | 50 |
| Medio-alto | 25 |
| Medio-bajo | 10 |
| — Nivel mediático | |
| Incidencia media | 10 |
| Incidencia media-alta | 25 |
| Incidencia alta | 50 |
| Incidencia muy alta | 100 |

| | *Puntuak* |
|---|---|
| >— Aurrekontua (euro): | |
| 0 - 1.000.000 | 0 |
| 1.000.001 - 3.000.000 | 10 |
| 3.000.001 - 5.000.000 | 25 |
| 5.000.001 - 10.000.000 | 50 |
| 10.000.001 - 20.000.000 | 75 |
| 20.000.000 baino gehiago | 100 |
| — Ikusleen batez bestekoa: | |
| 500 baino gutxiago | 0 |
| 500 - 1.000 | 10 |
| 1.001 - 3.000 | 30 |
| 3.001 - 5.000 | 50 |
| 5.001 - 10.000 | 75 |
| 10.000 baino gehiago | 100 |
| — Abonatu kopurua: | |
| 0 - 200 | 0 |
| 201 – 1.000 | 5 |
| 1.001 - 5.000 | 10 |
| 5.001 - 10.000 | 50 |
| 10.001 - 15.000 | 75 |
| 15.000 baino gehiago | 100 |

(*) Ez dira abonatutzat hartuko laguntza modura ekarpenak egiten dituzten bazkideak edo laguntzaileak.

4.3. Kasu bakoitzean dagokion diru laguntza honela kalkulatuko da: Laguntza hauetarako baimendutako aurrekontuko kredituen zenbatekoa erakunde onuradunek aurreko baremoa aplikatuta lortu dituzten puntuen guztizkoarekin zatitu, eta horrela ateratako puntuaren unitate balioa erakunde bakoitzak lortutako puntu kopuruarekin biderkatuta.

4.4. Emakumeen taldeak direnean, 40.000 euro gehiagoko diru laguntza emango da eta zenbateko hori, aldez aurretik, diru laguntzen aurrekontutik kenduko da.

4.5. Proiektu estrategikoen kasuan, honako irizpide hauek erabiliko dira balorazioa egiteko:

— Sortzen den kirol ikuskizuna.

— Modalitatearen erreferentea Gipuzkoan.

— Gizarte kohesiorako egiten duen ekarpena.

— Sortzen duen eragin ekonomikoa.

— Berdintasunaren sustapena.

Aurkezten diren proiektu batzuk interesgarritzat jotzen badira, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kirol politikarekin bat egiten dutelako, 4.3 atalean ezarritakoaren arabera kalkulatutako diru laguntzaren zenbatekoa %25 igo ahal izango da gehienez ere, proiektu bakoitzerako onartutako aurrekontuaren arabera.

Halakoetan, aparteko diru laguntza horien zenbatekoak oinarri hauen xede diren diru laguntzetarako baimendutako aurrekontu kredituen zenbatekoa murriztuko du; hori dela eta, murriztu ondoren gelditzen den kreditua erakunde onuradun guztien artean banatuko da berriz ere.

| | *Puntos* |
|---|---|
| — Nivel presupuestario (euros) | |
| 0 - 1.000.000 | 0 |
| 1.000.001 - 3.000.000 | 10 |
| 3.000.001 - 5.000.000 | 25 |
| 5.000.001 - 10.000.000 | 50 |
| 10.000.001 - 20.000.000 | 75 |
| Más de 20.000.000 | 100 |
| — Nivel medio de espectadores/as | |
| Menos de 500 | 0 |
| 500 - 1.000 | 10 |
| 1.001 - 3.000 | 30 |
| 3.001 - 5.000 | 50 |
| 5.001 - 10.000 | 75 |
| Más de 10.000 | 100 |
| — N.º de abonados/as (*) | |
| 0 - 200 | 0 |
| 201 – 1.000 | 5 |
| 1.001 - 5.000 | 10 |
| 5.001 - 10.000 | 50 |
| 10.001 - 15.000 | 75 |
| Más de 15.000 | 100 |

(*) No tendrán la consideración de abonados/as los socios y socias o las personas colaboradoras que realizan aportaciones particulares a modo de colaboración.

4.3. La subvención que en cada caso corresponda se obtendrá dividiendo el importe de los créditos presupuestarios autorizados para estas subvenciones, entre la totalidad de los puntos obtenidos por las entidades beneficiarias por aplicación del baremo anterior; y multiplicando el número de puntos alcanzado por cada entidad, por el valor unitario del punto hallado del modo señalado.

4.4. Cuando se trate de equipos femeninos, la subvención será incrementada en cada caso en un importe fijo de 40.000 euros, importe que habrá sido deducido previamente del presupuesto destinado a las subvenciones.

4.5. En el caso de proyectos estratégicos, los criterios para su valoración serán los siguientes:

— Espectáculo deportivo generado.

— Referente de la modalidad en Gipuzkoa.

— Contribución a la cohesión social.

— Impacto económico generado.

— Fomento de la igualdad.

En el caso de que algunos de los proyectos presentados sean considerados de especial interés al confluir con la política deportiva de la Diputación Foral de Gipuzkoa, el importe de la subvención inicialmente calculado según lo establecido en el apartado 4.3 se podrá incrementar hasta un máximo de un 25% en función del presupuesto aceptado para cada proyecto.

En estos supuestos, la cuantía de estas ayudas económicas extraordinarias reducirá el importe total de los créditos presupuestarios autorizados para subvenciones objeto de estas bases, motivo por el que se realizará una nueva redistribución del crédito resultante entre todas las entidades beneficiarias.

*5. Diru laguntza ematea eta ordaintzea.*

5.1. Diru laguntza hauen erakunde onuradunak aurretik zehaztuta daudenez, txapelketa kategoria eta kirol modalitate jakinetan parte hartu behar dutelako, laguntza hauen urteko deialdian dagokion kategoria eta modalitatearen araberako gehieneko diru laguntza ezarriko da erakunde horientzat.

5.2. Diru laguntza 2012ko aurrekontuaren kargura ordainduko da. Diru laguntzaren %80 2012ko martxoaren 31 baino lehen ordainduko da, hirugarren oinarrian eskatzen diren agiriak aurkeztu ondoren.

5.3. Gainerako %20 kirol denboraldia bukatu ondoren emango da, 6. oinarrian xedatutako kontu zurigarria aurkeztutakoan.

5.4. Interes berezia duten proiektuetarako lankidetza hitzarmen bat sinatu ahal izango da diru laguntzaren onuradun den erakundearekin, eta bertan zehaztuko da diru laguntzaren zenbatekoa, eta proiektu estrategikoa gauzatzearekin zerikusia duten gainerako betebeharrak.

*6. Kontu zurigarria aurkeztea.*

Kontu zurigarria kirol denboraldia bukatu ondoren aurkeztu beharko da. Ez bada hala egiten, erakundeak ez du hurrengo denboraldirako laguntzarik jasoko, laguntzarik baldin badago, eta 15. oinarri orokorrean ezarritakoa aplikatuko da.

Kontu zurigarriak honako dokumentazio hau bildu beharko du:

a) Laguntza emateko baldintzak bete direla zuritzen duen memoria, zer jarduera egin diren eta zer emaitza lortu diren zehaztuta.

b) Amaitutako denboraldiko urteko kontuak, klubeko edo kirol erakundeko zuzendaritza batzordeak onartuta.

c) Erregimen berezikoak direlako hala dagokionean (kirol sozietate anonimoak, fundazioak), erakundearen ordezkariaren idatzi sinatua, ekitaldi horretako abenduaren 31 baino lehen erakunde horiei dagokien sistemaren arabera ikuskatutako urteko kontuak aurkezteko konpromisoa hartzen duela adierazten duena.

d) Diruz lagundutako jarduketa finantzatu duten bestelako diru sarrera edo laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

e) Hala badagokio, ordainagiria, aplikatu gabeko soberakinen kasuan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak egin ahal izango ditu egoki iruditzen zaizkion ikuskatze lanak, diru laguntzen inguruko araudiari jarraituz. Halaber, edozein erakunde onuraduni eskatu ahal izango dio oinarri honetako c) atalean aipatutako kontu ikuskatuak aurkezteko, nahiz eta erakunde onuraduna atal horretan aipatutako erregimen berezikoa ez izan.

*7. Betebeharrak.*

Diru laguntzen onuradun diren erakundeek honako betebehar hauek bete beharko dituzte, 11. oinarri orokorrean ezarritakoez gain:

— Gipuzkoako Foru Aldundiak proposa ditzakeen jardueretan parte hartzea.

— Eskatuz gero, etorkizuneko kirolarientzat eta ikasleentzat abonuak eta sarrerak ematea.

— Betetzea Gipuzkoan eskola kirolaren inguruan indarrean dagoen araudia, eta 2011ko otsailaren 16ko Diputatuen Kontseiluaren Erabakiaren bidez onartutako kirol gaietako diru laguntzak emateko oinarri arautzaileek ezarritako gainerako obligazioak (2011ko otsailaren 21eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 34. zk.).

*5. Concesión y abono de la subvención.*

5.1. Como quiera que las entidades beneficiarias de estas subvenciones se encuentran de algún modo predeterminadas por su participación en categorías de competición y modalidades deportivas concretas, en la convocatoria anual de estas ayudas se establecerá la subvención máxima a la que podrán acceder dichas entidades según la categoría y modalidad de que se trate.

5.2. La subvención se abonará con cargo al presupuesto del ejercicio 2012. El 80% de la ayuda económica se abonará antes del 31 de marzo de 2012, previa presentación de los documentos exigidos en la base 3.ª

5.3. El 20% restante será abonado una vez finalizada la temporada deportiva y previa presentación de la cuenta justificativa regulada en la base 6.ª

5.4. En el caso de proyectos considerados de especial interés, se podrá suscribir un convenio de colaboración con la entidad beneficiaria de la subvención, convenio en el que se determinará la cuantía de la misma, así como las restantes obligaciones relacionadas con la ejecución del proyecto estratégico.

*6. Presentación de la cuenta justificativa.*

La cuenta justificativa deberá ser presentada al finalizar la temporada deportiva. En caso contrario, la entidad no podrá optar a las ayudas relativas a la temporada siguiente, si las hubiere, y se aplicará lo dispuesto en la base general 15.ª

La cuenta justificativa deberá contener la siguiente documentación:

a) Una memoria de actuación justificativa de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos, así como del cumplimiento de las condiciones impuestas.

b) Las cuentas anuales de la temporada finalizada aprobadas por la junta o comisión directiva del club o entidad deportiva de que se trate.

c) En el caso en que su régimen especial así lo exija (sociedades anónimas deportivas, fundaciones), compromiso firmado por la persona representante de la entidad en el que se obligue a presentar, antes del 31 de diciembre de ese ejercicio, las cuentas anuales auditadas conforme al sistema al que están sometidas dichas entidades.

d) Una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada, con indicación del importe y su procedencia.

e) En su caso, la carta de pago en el supuesto de remanentes no aplicados.

La Diputación Foral de Gipuzkoa podrá llevar a cabo las actuaciones de comprobación previstas en la vigente normativa sobre subvenciones que estime oportuno. Así mismo, podrá exigir a cualquiera de las entidades beneficiarias la presentación de las cuentas auditadas que se mencionan en el apartado c) de esta base, aunque la entidad beneficiaria no llegue a encontrarse bajo el régimen especial que se cita en dicho apartado.

*7. Obligaciones.*

Las entidades beneficiarias de las subvenciones deberán cumplir las siguientes obligaciones, además de las señaladas en la base general 11.ª:

— Participar en actividades que pueda proponer la Diputación Foral de Gipuzkoa.

— En el caso en que así se les solicitara, ceder abonos y entradas para deportistas promesas y escolares.

— Cumplir la normativa sobre deporte escolar vigente en Gipuzkoa, así como el resto de obligaciones establecidas en el Acuerdo del Consejo de Diputados de 16 de febrero de 2011, por el que se aprobaron las bases reguladoras de la concesión de ayudas económicas en materia de deporte (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 34, de 21 de febrero de 2011).